

BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA

2042

EBAZPENA, 2008ko apirilaren 25ekoa, Ingurumeneko sailburuordearena, zinta itsaskorrek fabrikatzeko ingurumeneko baimen bateratua emateko dena, Hernaniko (Gipuzkoa) udalerrian Cintas Adhesivas Ubis, S.A. enpresak sustatua.

AURREKARIAK

2005eko uztailaren 29an, Cintas Adhesivas Ubis, S.A. enpresak Eusko Jaurlaritzako orduko Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailari ingurumeneko baimen bateratua ematea eskatu zion, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak xedatutakoaren arabera, Hernaniko (Gipuzkoa) udalerrian zinta itsaskorren fabrikazio-jarduerarako. Eskaerarekin batera honako dokumentazio teknikoa aurkeztu zuen:

- A agiria: «Memoria» (2005eko uztailaren 29koa).
- B agiria: «Dokumentazio osagarria» (2005eko uztailaren 29koa).

Erreferentziako baimena eskatzeko unean, Cintas Adhesivas Ubis, S.A. enpresak, besteak beste, jarduerarako 2005eko otsailaren 1eko baimena zuen. Baimen hori Lastaola Poligonoan oinarri disolbatzailean itsaskortzeko linea berri baten jarduerarako eman zen. Halaber, enpresa sustatzaileak isurketak saneamendu-sarera egiteko zegokion baimena zuen, 2005eko martxoaren 11koa, uren esparruan indarrean dagoen araudiak xedatutakoari jarraituz.

Beranduago, 2005eko uztailaren 6an, xede dugun proiektuaren eta Hernaniko hirigintza-plangintzaren arteko bateragarritasunari buruzko udal txostena bidali zen.

2005eko irailaren 20an, Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak prozeduran esku-hartzea duten hainbat organori txostenak eskatu zizkion, Ingurumen Organoaren bidez proiektua jendaurrean jartzeko izapidea adosteari dagokionez. Hain zuzen, Hernaniko Udalari, Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Industria Sailei, Ingurumen Saileko Uren Zuzendaritzari, Iparraldeko Ur Konfederazioari eta Añarbeko Uren Mankomunitateari.

Ingurumen Organoak agiri osagarriak eskatu zizkion sustatzaileari 2006ko martxoaren 7an; espedientea 2007ko urriaren 23an osatu zen.

Aurkeztutako agiriak nahikoa zirela egiaztatu ondoren, Ingurumen sailburuordeak 2007ko azaroaren 14an emandako Ebazpenaren bidez jendaurrean jarri zen, 30 egun baliodunen epean, Cintas Adhesivas Ubis, S.A. enpresak sustatutako proiektua, egoki iritzitako alegazioak aurkezteko. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian nahiz Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, bietan 2007ko abenduaren 3an. Halaber, proiektuak hartuko duen eremuaren ondoko auzokide bakoitzari jakinarazpena bidali zitzaion.

Jendaurrean jartzeko izapidea amaitu ondoren, alegaziorik ez dagoela egiaztatu da.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 17. eta 18. artikuluetan xedatutakoa betez, Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak, 2008ko otsailaren 8an, txostena eskatu zien Hernaniko Udalari, Gipuzkoako Osasun Publikoko Zuzendariordetzari, Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, S.A. sozietateari eta Iparraldeko Ur Konfederazioari.

2008ko urtarrilaren 30ean, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan xedatutakoa betez, espediente osoa Cintas Adhesivas Ubis, S.A. enpresaren esku utzi zen, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak egindako ebazpen-proposamena gehituta.

2008ko otsailaren 12an sustatzailearen jakinarazpena jaso zen. Jakinarazpen hartan hainbat ohar egiten ziren Ingurumeneko Baimen Bateratuaren Ebazpen Proposamenari lotuta.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da atmosferaren, uraren eta lurzorua kutsadura saihestea edo, hori ezinezkoa denean, kutsadura hori gutxitu eta kontrolatzea; eta hori lortzeko, ingurumen osoaren babes-maila altua helburutzat harturik, kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko sistema integratu bat ezartzea.

Apirilaren 20ko 509/2007 Errege Dekretuaren, uztailaren 1eko Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko 16/2002 Legea garatu eta burutzeko Erregelamendua onartzen duenaren 3. artikuluan xedatutakoarekin bat eginez, baimen honetan sartzen dira ekoizpen-elementu eta -linea guztiak; 16/2002 Legearen 1. eranskinean aipatzen ez diren arren, lege hori aplikatu beharreko esparruko jardueren instalazioetan gauzatzen dira eta jarduera horrekin zerikusia dute.

16/2002 Legearen 9. artikulua ezartzen duena betez, ingurumeneko baimen bateratua behar dute 1. eranskinean aipatzen diren jardueraren bat garatzen duten instalazioak eraiki, muntatu, ustiatu, lekuz aldatu nahiz funtsezko beste aldaketaren bat egiteko. 11. artikulua arabera, baimen honen oinarritzko helburua baldintzak ezartzea da, araua, berau aplikatu daitekeen instalazio guztietan betetzen dela bermatzeko; horretarako, baimena emateko parte hartuko duten Herri Administrazio desberdinen artean koordinatuta izango den prozedura bat erabili nahi da, izapideak erraztu eta partikularrek ordaindu beharreko kargak gutxitzearren. Era berean, indarrean dagoen araudiaren arabera ingurumeneko administrazio-baimen guztiak egintza administratibo bakar batean bildu nahi dira. Cintas Adhesivas Ubis, S.A. enpresaren kasuan, baimen hauek guztiak behar ditu: hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuen sortzaileak behar dituen baimenak; kolektorerak isurketak egiteko baimena; ingurumen izaerako beste zehaztapenen artean, atmosferaren kutsadurari dagozkion baimenak eta lurzorua kutsadura prebenitu eta hari aurre hartzeari dagozkionak. Gainera, eskumeneko beste administrazio eta organismo batzuk luzatutako txostenak barne hartuko dira espedientean.

16/2002 Legearen 29. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozedurak ordeztu duen jarduera sailkatuetarako udal lizentziaren prozedura, azaroaren 30eko 2414/1961 Dekretuan, jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei buruzkoan aurreikusten zena; ez du ordezkatzeko, ordea, udal agintaritzak emango duen behin betiko ebazpena. Ondorio horietarako, ingurumeneko baimen bateratua udal agintarientzat loteslea izango da, baldin eta lizentzia ukatzeko bada edota neurri zuzentzaileak ezartzeko bada; baita aipatu arauaren 22. artikuluan jasotako ingurumen-alderdiei buruzko aipamena egiten bada ere. 29. artikulua horretan aipatzen denez, goiko guztiak ez ditu kaltetuko autonomia-erkidego bakoitzean jarduera sailkatuei aplikatzekoak diren gainerako arauak. Transkribatutako aginduak aplikatuz, Cintas Adhesivas Ubis, S.A. enpresari dagokion ingurumeneko baimen bateratuaren prozedurak barne hartu ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean aurreikusitako izapideak; horiez gain, espedientean sartu dira Hernaniko Udalaren eta Osasun Sailaren txostenak.

Azkenik, instalazioak gehienez isur ditzakeen gai kutsagarrien balioak eta ingurumena, oro har, ahalik eta gehien babesteko ustiapenerako ezarriko zaizkion beste baldintza batzuk zehazte aldera, Ebazpen hau egiterakoan kontuan izan da teknika onenen erabilera. Zehazki, Europako Batzordearen 2006ko azaroko «Reference document on Best Available Techniques for Surface Treatments Using Organic Solvents» BREF txostenaren edukia kontuan hartu da.

Espedienteko txostenak aztertu ondoren, Ebazpen Proposamena sinatu eta Cintas Adhesivas Ubis, S.A. enpresak sustatutako proiektuak bete beharreko baldintzak ezarri ziren.

Goian adierazitako izapideak amaitu dira, eta 2002ko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzkoaren 20. artikuluan jasotzen den entzunaldi-izapidea bete da. Zentzu horretan, kontuan hartu behar da organo honi atxikitako zerbitzu teknikoek sustatzaileak izapidetze honetan egindako oharrak aztertu dituztela, eta guztiak kontuan hartu direla Ebazpen hau lantzeko.

Organo hau da ingurumeneko baimen bateratu hau emateko eskuduna, aipatutako legearen 13. artikuluan eta 2005eko urriaren 25eko 340/2005 Dekretuaren, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duenaren 9. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Ondorengo araudia ikusi da: Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak 2008ko urtarrilaren 28an emandako ebazpen-proposamena; otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra, Euskal Herriko Ingurumena Babesteari buruzkoa; 16/2002 Legea, uztailaren 1ekoa, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzkoa; ekainaren 28ko 1302/1986 Errege Dekretu Legegilea, Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazioari buruzkoa eta maiatzaren 8ko 6/2001 Legeak aldatzen duena; irailaren 30eko 1131/2005 Dekretua, berau garatzeko erregelamendua onartzeko dena; urriaren 25eko 340/2005 Dekretua, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duena; azaroaren 26ko 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa, eta aplikatzeko den gainerako araudia,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Helbide soziala Hernaniko (Gipuzkoa) udalerriko Lastaola Industrialdeko 39. zenbakian duen eta IFK: A20024567 zenbakia duen Cintas Adhesivas Ubis, S.A. enpresari Ingurumeneko Baimen Bateratua ematea, zinta itsaskorrek fabrikatzeko jarduerarako Hernaniko udalerrian, eta Ebazpen honen Bigarren atalean zehaztutako baldintzak jarraituz.

Jarduera Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. eranskinean jasota dago. Hain zuzen ere, 10.1 kategorian, «Disolbatzaile organikoak erabiltzen dituzten material, objektu edo produktuen azalerak tratatzeko instalazioak, bereziki distira emateko, estanpatzeko, estaltzeko eta deskoipetzeko, iragazgaizteko, itsasteko, lakatzeko, garbitzeko edo bustitzeko, orduko 150 kg disolbatzaile edo 200 tona/urteko kontsumitzeko gaitasunarekin».

Enpresa Lastaolako Industrialdeko hiru lurzatitan dago kokatuta eta guztira 31.296 m²-ko azalera betetzen du.

Cintas Adhesivas Ubis, S.A. enpresaren instalazioetan garatzen den jardueraren ardatz nagusia enbalatzeko, babesteko eta beste erabilera batzuetarako zinta itsaskorrek fabrikatzea da eta, zehazkiago, polibinil klorurozko (PVC) eta propilenoazko (PP) zintak, beira-zuntzarekin indartutako zintak, crepe paperezko zintak edo masking-zintak, bi alboetatik itsaskorrek diren zintak, eta papergintza eta bulegorako zelofana eta zinta inprimatuak, 1, 2 eta 3 koloretan.

Bi ekoizpen-prozesu garatzen dira zinta itsaskorrek lortzeko: alde batetik, oinarri disolbatzailean itsaskortzea (M2 eta M4 makinak) eta Hot Melt itsaskortzea (M3 makina) bestetik. Guztizko ekoizpen-bolumena 453.000.000 m² da (345.000.000 m² oinarri disolbatzaileko itsaskortze-prozesurako eta 108.000.000 m² HOT MELT itsaskortze-prozesurako).

Oinarri disolbatzaileko itsaskortze-prozesuan, bestalde, honako etapa hauek bereiz daitezke:

- Itsasgarria prestatzea.
- Itsaskortzea.
- Moztea.
- Prestatzea.
- Inprimatzea.
- Erroiluak etiketatzea.
- Paletak biltzea.

Honako etapa hauek bereizten dira Hot Melt itsaskortze-prozesuan:

- Estrusioa.
- Berniza nahastea.
- Itsaskortzea.
- Moztea.
- Prestatzea.
- Inprimatzea.
- Erroiluak etiketatzea.
- Paletak biltzea.

Fabrikan erabiltzen diren lehengaiak multzokatu egiten dira euskarri (PVC, Crepe papera, eta abar), disolbatzaile (toluenoa, hexanoa, isopropanola, azetona, eta abar), eta beste lehengai batzuen arabera (kautxua, erretxinak, oxidoak, eta abar).

Bestalde, fabrikan energia elektrikoa kontsumitzen da, gas naturala kontsumitzen da makinak elikatzeko (C2, C3 eta C4) eta gasoila, berriz, fabrikako orga jasotzailetarako. Instalazioetan kontsumitzen den ura Lastaolako Industrialderako hartune orokor batetik hartzen da.

Fabrikan atmosferara isurketak egiten dituzten 12 foku daude, hexanoa berreskuratzeko prozesuetan sortutakoak, toluenoa berreskuratzetik sortutakoak, lurrina sortzearen ondoriozkoak, pikortzeko makinak eta estrusio-makinak sortutakoak, eta inprimagailuetan sortutakoak. Ezarritako neurri zuzentzaileen artean, hexano-berreskuratzaileetan disolbatzailea berreskuratzeko sistemak instalatu dira, ikatz bidezko erregenerazio-adsortzioaren bidez, eta partikulen iragazki bat jarri da estrusio-makinan.

Cintas Adhesivas Ubis, S.A. enpresako instalazioetan sortutako efluenteak 2 eta 3 makinetatik, R2 eta R3 hexano- eta tolueno-berreskuratzaileetatik, estrusio-makinetatik eta prestaketa-makinetatik datozen hozte-urak dira, eta Urumea ibaiaren ibilgura zuzentzen dira, C3 galdarako purgekin batera, instalazioko euri-uren sarera egindako hiru lotuneren bitartez. Bestalde, Añarbeko Uren saneamendu-sarera isurtzen dira hexano- eta tolueno-berreskuratzaileetako kondentsatuen

industria-urak, instalazio osoko ur sanitarioekin eta C4 galdarako eta M4 hozte-dorreetako purgekin batera, eta bi isurketa-puntu independente erabiltzen dira horretarako.

Gehienez ere bi urteko epean instalazioko hondakin-uren sareak aldatzea aurreikusi da eta, modu horretan, ez da isurketa gehiago egingo Urumea ibaira eta Añarbeko Uren sareko isurketa-puntuak bakarrik erabiliko dira. Aurreikusitako jardueren artean, R-2 hexano-berreskuratzailea kentzea aurreikusi da, bai eta R-3 tolueno-berreskuratzailea 4 makina kokatzen den lurzatian jartzea ere, edo estrusio-makinaren Hozte-ura birzirkulatzea, hartara, berriro erabili ahal izateko, eta prestaketa-makinaren isurketa ekiditea, ur horiek berriro zirkulazioan jarriz edo zirkuitu itxiko hozte-sistema propio bat sortuz.

«Reference document on Best Available Techniques for Surface Treatments Using Organic Solvents» erreferentziazko dokumentuan azpimarratzen den Teknika Onenen Erabilerarekin (TOE) bat datozen neurri gehiago barne hartzen ditu proiektuak, halaber, besteak beste: 3 makinan HOT-MELT teknologia bidezko itsaskortzea, ikatz aktiboko adsortzioa hexanoa eta toluenoa berreskuratzeke, makinak garbitzeko disolbatzaile alternatiboak erabiltzea, eta abar.

Bigarrena.– Cintas Adhesivas Ubis, S.A. enpresak Hernaniko udalerrian sustatutako zinta itsaskorrak fabrikatzeko jarduerarako ondorengo baldintzak eta eskakizunak jartzea:

A) Administrazioarekiko harremanez arduratuko den pertsonaren gainean Ingurumen Sailburuordetzari eman dizkion datuetan aldaketarik balego, Cintas Adhesivas Ubis, S.A. enpresak aldaketa horien berri emango du.

B) Neurri babesle eta zuzentzaileak, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu dituen agirietan aurreikusita bezala burutuko dira, indarrean dagoen araudiaren arabera eta ondorengo ataletan ezarritakoari jarraituz:

B.1.– Instalazioaren jardunerako baldintza orokorrak.

B.1.1.– Airearen kalitatea babesteko baldintzak.

B.1.1.1.– Baldintza orokorrak.

Cintas Adhesivas Ubis, S.A. instalazioa ustiatzean atmosferara egingo diren isurketek ez dituzte Ebazpen honetan ezarritako balioak gaindituko.

Prozesuan zehar atmosferara isurtzen den gai kutsatzaile oro bildu eta ihesbide egokienean zehar kanpora bideratuko da, behar denean, gai kutsatzaileen ezaugarrien arabera diseinatutako gasak arazteko sistema batetik igaro ondoren.

Arau orokor hori bete beharrik ez dute izango gai kutsatzaileak mugarik gabe isuri eta horiek biltzea teknikoki edo ekonomikoki bideragarria ez denean, edota ingurunean kalte urria eragiten dutela egiaztatzen denean.

Neurriak hartuko dira ustekabean gai kutsatzaileak ez botatzeko, eta botatzen direnak giza osasunerako nahiz gizartearen segurtasunerako arriskutsuak izan ez daitezen. Gas-efluenteak tratatzeko instalazioak behar bezala ustiatu eta mantenduko dira, efluenteen tenperatura- eta konposizio-aldakuntzei modu eraginkorrean aurre egiteko. Era berean, ahalik eta gehien murriztuko dira instalazio horiek gaizki dabilzan edo geldirik dauden aldiak.

B.1.1.2.– Fokuak identifikatzea. Katalogazioa.

Cintas Adhesivas Ubis, S.A. instalazioak ondorengo fokuak ditu, atmosfera babestearen arloan indarrean dagoen araudiaren arabera katalogatuta:

Foku zk.	Erregistro-liburuan duen izena	Isurtze-fokuaren izena	Garaiera (m)	Diametroa (m)	Katalogazioa		UTM koordinatuak	
					Taldea	Epigrafea	X	Y
1	20000716-01	1. adsorbatzailea R-2 hexanoa berreskuratzea	6,965	0,6	B	2.12.1	585308	790336
2	20000716-02	2. adsorbatzailea R-2 hexanoa berreskuratzea	6,965	0,6	B	2.12.1	585309	4790339
3	20000716-03	3. adsorbatzailea R-2 hexanoa berreskuratzea	6,965	0,6	B	2.12.1	585310	4790342
4	20000716-04	4. adsorbatzailea R-2 hexanoa berreskuratzea	7,965	0,6	B	2.12.1	585310	4790344
5	20000716-05	R-3 tolueno-berreskuratzailea	8,25	0,8	B	2.12.1	585335	4790320
6-D	20000716-06	C2 lurrun-galdara	9,20	0,8	Foku ez-sistematikoa		585347	4790316
7	20000716-07	C3 lurrun-galdara	13,89	0,8	C	3.1.1	585345	4790313
8	20000716-08	Pikortzeko makina (1 prestaketa)	4,5	0,25	C	3.12	585378	4790305
9	20000716-09	M-3 estrusio-makina	19,1	0,35	C	3.12	585186	4790262
10	20000716-10	Inprimagailuak	3	0,3	C	3.12.1	585429	4790235
11	20000716-11	R-4 hexano-berreskuratzailea	4,315	1,5	B	2.12.1	585369	4790428
12	20000716-12	C4 lurrun-galdara	7,66	0,98	B	2.1.2	585403	4790425

Bestalde, isurketa sakabanatu etendunak egiten dira, eta isurketa gehienak toluenoa eta hexanoa estalkiak egiteko eta oinarri disolbatzailean itsaskortzeko disolbatzaile bezala manipulatzeko sortzen dira.

B.1.1.3.– Isurtzeko muga-balioak.

Instalazioa ustiatzean atmosferara egingo diren isurketek ez dituzte isurtzeko muga-balio hauek gaindituko:

Fokua	Substantziak	Isurtzeko muga-balioak
1. adsorbatzailea R-2 hexanoa berreskuratzea	KOH	90 mgC/Nm ³
2. adsorbatzailea R-2 hexanoa berreskuratzea	KOH	90 mgC/Nm ³
3. adsorbatzailea R-2 hexanoa berreskuratzea	KOH	90 mgC/Nm ³
4. adsorbatzailea R-2 hexanoa berreskuratzea	KOH	90 mgC/Nm ³
R-3 tolueno-berreskuratzailea	KOH	90 mgC/Nm ³
C3 lurrun-galdara	Karbono-monoxidoa (CO)	500 ppm
	Nitrogeno oxidoak (NOx)	300 ppm
Pikortzeko makina (1 prestaketa)	Partikulak	150 mg/Nm ³
M-3 estrusio-makina	Partikulak	150 mg/Nm ³
Inprimagailuak	KOH	100 mgC/Nm ³
R-4 hexano-berreskuratzailea	KOH	90 mgC/Nm ³
C4 lurrun-galdara	Karbono-monoxidoa (CO)	500 ppm
	Nitrogeno oxidoak (NOx)	300 ppm

Isurketarako muga-balioak, 273 K temperatura eta 101,03 kPa presio eta gas lehorreko kantitatea duten egoerei dagozkie.

Itsasgarrien bidez estaldurak egiteko jardueraren isurketa barreiatuaren muga-balioa (disolbatzaile-sarreraren portzentajea) % 20koa da.

Gehienez onar daitezkeen parametroek ez dituzte isurketarako muga-balioak gaindituko, arauz egingo diren aldizkako ikuskaritzetan (ordubeteko hiru neurketa gutxienez) zortzi ordutan zehar neurtuta. Neurketa-tolerantzia gisa, kasu guztien % 25ean gainditu ahal izango da muga-balioa, % 40a gainditzen ez duen zenbatekoa baldin bada. Tolerantzia hori gaindituz gero, neurketa-aldia astebetetz luzatuko da, eta aldi honetako tolerantzia global gisa, kasuen % 6an gehienez onar daitezkeen mailak gainditzea onartuko da, % 25a gainditzen ez duen zenbatekoa denean. Tolerantzia horiek izanda ere, gai kutsatzaileak isurtzen dituen fokua eraginpeko zonaldean ezin izango dira inoiz higienikoki onar daitezkeen balioak gainditu.

KOHei dagokienez (KOG bezala neurtuta), neurtutako parametroek ez dituzte isurtzeko muga-balioak gaindituko, arauz egingo diren aldizkako ikuskapenetan (ordubeteko hiru neurketa gutxienez), neurketa guztien batez bestekoak ez baditu gainditzen isurketako muga-balioak eta ordubeteko neurketek ez badituzte gainditzen 1,5 baino gehiagogatik isurketaren muga-balioak.

B.1.1.4.– Gasak biltzeko eta husteko sistemak.

Fokuetako gas-hondarrak kanporatzeko tximiniek ez dute B.1.1.2 atalean jasota dagoen goreneko kota baino baxuagoa izango. Tximinietan behar beste neurri hartuko dira Industria Ministerioak 1976ko urriaren 18an emandako Agindua (Industriak atmosferan eragiten duen kutsadurari aurre hartu eta hori zuzentzeari buruzkoa) bete dezaten; besteak beste, laginak hartzeko puntuetara iristeko sarbide seguru eta errazak izango dituzte.

Zehazki, laginak hartzeko aurreikusitako zuloen kokapenari eta ezaugarriari dagokienez, gas-fluxuak laginketa-puntutik neurketa-puntura bitartean, bere norabidean zehar nahiz aurkakoan, edozein perturbazio izan dezakeen gunera bitarteko distantziek (L1 eta L2 parametroak) 1976ko urriaren 18ko Aginduaren III. eranskinean xedatutakoa beteko dute.

$L1 \geq 8D$ eta $L2 \geq 2D$ distantziak betetzen ez diren fokuetan, inoiz ez dira $L1 < 2D$ eta $L2 < 0,5D$ balioak onartuko. Kasu horietan, neurketen txostenean laginketa-planoaren baliozkotasuna justifikatzea eskatuko da.

B.1.2.– Isurketak egiteko baldintzak.

B.1.2.1.– Isurketen sailkapena, jatorria, ingurune hartzailea eta kokapena.

Isurketa sortzen duen jarduera mota nagusia: zinta itsaskorren fabrikazioa.

Jarduera-taldea: kimika.

Mota-taldea-EJSN: 2-09-25.24.

Isurketa-puntua	Hondakin-ur mota	Isurketaren jatorria	Ingurune hartzailea	Arro hidrografikoa	Ingurune hartzailearen kategoria	Isurketa-puntuaren UTM koordenatuak
1	Hozte-ura	M2 makina	Urumea ibaia	Urumea	I	X= 585310 Y= 4790341
		R2 hexano-berreskuratzailea				
		R3 tolueno-berreskuratzailea				
		C3 galdarako purgak				
2	Hozte-ura	M3 makina	Urumea ibaia	Urumea	I	X= 585243 Y= 4790278
		Estrusio-makina				
3	Hozte-ura	C4 galdarako purgak	Saneamendu orokorreko sarea (Añarbeko Urak)	n/a	n/a	X = 585355 Y = 4790398
		Hozte-dorrea (M4)				
4	Industria-urak	R2 eta R3 kondentsatuak eta etorkizuneko R4 (R2 desagertzear)	Saneamendu orokorreko sarea (Añarbeko Urak)	n/a	n/a	X= 585323 Y= 4790367
5	Hozte-ura	Prestaketa-makina	Urumea ibaia	Urumea	I	X= 585378 Y= 4790289

B.1.2.2.– Gehienez isur daitezkeen emari eta bolumenak.

a) 1. isurketa: hozte-ura M2 kutxeta:

Orduko puntako emaria	180 m ³ /h
Eguneko gehienezko bolumena	4.296 m ³ /eguneko
Urteko gehienezko bolumena	586.574 m ³ /urteko

b) 2. isurketa: hozte-ura M3 kutxeta:

Orduko puntako emaria	31 m ³ /h
Eguneko gehienezko bolumena	494,4 m ³ /eguneko
Urteko gehienezko bolumena	109.757 m ³ /urteko

c) 3. isurketa kolektorera: hozte-ura AC2 kutxeta (M4 makina):

Orduko puntako emaria	2,6 m ³ /h
Eguneko gehienezko bolumena	43,2 m ³ /eguneko
Urteko gehienezko bolumena	9.590 m ³ /urteko

d) 4. isurketa kolektorera: industria-urak AC1 kutxeta (R-2, R-3 eta etorkizuneko R-4ko kondentsatuak –R-2 desagertze-):

Orduko puntako emaria	7 m ³ /h
Eguneko gehienezko bolumena	140 m ³ /eguneko
Urteko gehienezko bolumena	31.080 m ³ /urteko

e) 5. isurketa: hozte-ura prestaketa-kutxeta:

Orduko puntako emaria	14 m ³ /h
Eguneko gehienezko bolumena	336 m ³ /eguneko
Urteko gehienezko bolumena	8.064 m ³ /urteko

B.1.2.3.– Isurtzeko muga-balioak.

Ondorengo zerrendan ageri dira ibilgura eta saneamendu-sarera egindako isurketen kutsaduraren parametroen ezaugarri nagusiak, bakoitzarentzat ezarritako gehieneko muga-balioekin:

a) Ubidera egiten diren 1., 2. eta 5. isurketak: hozte-ura M2 eta M3 kutxeta eta prestaketa-kutxeta:

Parametroak	Isurtzeko muga-balioak
pH-a	5,5-9,5
SE	35 mg/l
Hondar-kloroa guztira	0,05 mg/l
DQO	40 mg/l
Konposatu organohalogenatuak (AOX)	0,15

Oharrak:

1: Neurketen balioak (BKE 2007ko apirila).

2: hozteari buruzko BREF balioak zirkuitu irekietarako.

b) 3. eta 4. isurketak: hozte-ura AC2 kutxeta (M4 makina) eta industria-urak AC1 kutxeta (R2, R3 eta etorkizuneko R4 berreskuratzaileak –R2 desagertze-).

Añarbeko Uren Mankomunitateko kolektorera egiten diren isurketen Ordenantzan barne hartutako mugak eta baldintzak bete beharko dira, baina salbuespena izango dira honako muga gehigarri hauek:

3. isurketa: P guztizkoa 5 mg/l; Zn 3 mg/l; AOX 0,5 mg/l.

4. isurketa: toluenoa (balio puntual maximoa) 5 mg/l.

Toluenoaren kasuan ezarritako muga-balioa 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera bete beharko da.

Temperatura: ubideko temperatura 1,5 °C baino gutxiago areagotzea.

Ezingo dira diluzio-teknikak erabili isurien muga-balioak lortzeko.

Gainera, ingurune hartzaileari dagozkion arauak eta kalitate-helburuak bete behar dira. Aitzitik, titularrak kasuan kasu tratamendu egokia egin beharko du, isurketaren ondorioz aipatutako kalitate-helburuak urratzen ez direla ziurtatzeko.

Baimen honek baldintza honetan berariaz aipatutako substantzien isurketak bakarrik barne hartzen ditu eta, batez ere, 606/2003 Errege Dekretuaren Hirugarren Xedapen Gehigarrian barne hartutako substantzienak. 606/2003 Errege Dekretua maiatzaren 23koa da eta 849/1986 Errege Dekretua, apirilaren 11koa eta Jabari Publiko Hidraulikoaren Araudia onartzen duena, aldatzen du, eta abuztuaren 2ko 29/1985 Uraren Legeko I. IV., V., VI. eta VIII. Atariko Tituluak garatzen ditu.

Hozte-zirkuituak husteko erregularitasunez kontuan hartu eta bermatu behar den protokoloa hauxe da:

1.– Husteko gutxieneko denbora: 72 h.

2.– Hondar-kloro askea errektiboak gehituz edo beharrezko denboran pausagune bidez, eta abar ezabatzea, eta zuzeneko «in situ» analisi-kontrola, isuri aurretik klororik ez dagoela bermatzeko.

Putzuaren hondoa metatutako lohiak kendu eta hustea, hori isurtzea derrigorrez saihestu behar baita.

B.1.2.4.– Araztu eta husteko instalazioak.

Isurketak ezarritako ezaugarrietara egokitzeko neurriak martxan jartzeko planari dagokionez, ondoren adierazitako faseak eta epeak beteko dira, Urumea ibaira isurketa gehiago ez egiteko:

Sei hilabetetan:

– Prestaketa-instalazioko isurketa desagerraraztea, egungo prestaketa-sekzioko hozte-zirkuitua ixtean.

– 3. makinaren isurketa Cintas Adhesivas Ubis, S.A. enpresaren elikadura-uztaiarekin lotzea.

– R-3 toluenoa berreskuratzeko lanak 4 makinaren lurzatira eramatea eta R3 gaur egungo dorreetako hozte-sistemearekin konektatzea.

– C3 galdarako purgak industria-uren kolektorearekin konektatzea.

Aipatutako jarduera guztiak behin burutu eta gero, ubiderako isurketa-hondarren emariak isurketa-deklarazio berri batean aitortuko dira, behin betiko baimenean kontuan hartzeko, eta isurketen egoera deskribatuko duen txosten tekniko bat aurkeztuko da.

2012ko maiatzaren 1erako:

– R-2 hexano-berreskuratzailea desmuntatzea.

Halaber, egokitzapen-plan bat aurkeztu behar da, 4. isurketan toluenoaren gainean ezarritako muga-balioak betetzeko.

Aurkeztutako agirien arabera, baimendutako industria-uren isurketak kontrolatzeko bost kutxeta jarriko dira; kutxeta horiek isurketen lagin esanguratsuak lortzeko beharrezkoak diren ezaugarri

guztiak izango dituzte. Kutxetak ikuskatu ahal izateko sarbide zuzena ahalbidetzen duten lekuan kokatuko dira, hala badagokio.

B.1.2.5.– Isurien kontrol-kanona.

Uraren Legearen Testu Bateginaren 113. artikulua eta Jabari Publiko Hidraulikoaren Araudiko (606/2003 Errege Dekretua) 291. artikulua aplikatuz, honakoa isurien kontrol-kanonari dagokion zenbatekoa:

$$(IKK): \text{Isurien Kontrol Kanona} = V \times P_u.$$

$$P_u = P_b \times C_m.$$

$$C_m = C_2 \times C_3 \times C_4.$$

Honela ulertuta:

V = Isurketa baimenduaren bolumena (m^3 /urteko).

P_u = Isurketaren kontroleko prezio unitarioa.

P_b = Oinarrizkoa prezioa m^3 -ko isurketaren izaeraren arabera.

C_m = Isurketaren maiorazioko edo minorazioko koefizientea.

C_2 = Isurketaren ezaugarrien araberako koefizientea.

C_3 = Isurketaren kutsadura-mailaren araberako koefizientea.

C_4 = Ingurune hartzailearen ingurumen-kalitatearen araberako koefizientea.

1. isurketa: hozte ura:

$V_1: m^3/\text{urteko}$ $C_m: 0,06000$	$V_1 = \text{lehenengo } 100 \text{ Hm}^3$ $C_m = \text{Hoztea}$ $P_b = 0,03005 \text{ €/m}^3$
--	--

$$P_u = 0,06000 \times 0,03005 = 0,001803.$$

2. isurketa: hozte ura:

$V_1: m^3/\text{urteko}$ $C_m: 0,06000$	$V_1 = \text{Lehenengo } 100 \text{ Hm}^3$ $C_m = \text{Hoztea}$ $P_b = 0,03005 \text{ €/m}^3$
--	--

$$P_u = 0,06000 \times 0,03005 = 0,001803.$$

5. isurketa: hozte ura:

$V_1: 8.064 \text{ m}^3/\text{urteko}$ $C_m: 0,06000$	$V_1 = \text{lehenengo } 100 \text{ Hm}^3$ $C_m = \text{Hoztea}$ $P_b = 0,03005 \text{ €/m}^3$
--	--

$$P_u = 0,06000 \times 0,03005 = 0,001803.$$

$$\text{Isurien Kontrol Kanona} = 0,001803 \times 586.584 = 109.757 + 8.064) = 1.270,04 \text{ euro/urteko.}$$

Zenbateko hori ez da aldatuko isurtzeko baimena edo isurien kontrol-kanonaren kalkulua osatzen duten faktoreetako bat aldatzen ez den artean.

Urte natural bakoitza amaitu ondoren, titularrari urte horri dagokion likidazioa bidaliko zaio.

Isurketen kontrol-kanona ez da lotuta egongo saneamendu- eta arazte-lanak finantzatzeko autonomia-erkidegoek edo udalek ezar ditzaketen kanonekin edo zergekin (ULTBren 113.7. artikulua).

B.1.3.– Instalazioan sortutako hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko baldintzak.

Instalazioetan sortzen diren hondakin guztiak hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legean eta aplika dakiekeen berariazko gainerako araudian xedatutakoari jarraituz kudeatuko dira; hondakinak karakterizatu egin beharko dira euren izaera zehaztu eta helburu egokiena erabakitzeko.

Espresuki debekatuta dago sortzen diren tipologia desberdineko hondakinak elkarrekin edo beste hondakin nahiz efluente batzuekin nahastea; hondakinak jatorritik bertatik bereiziko dira eta horiek bildu eta biltegitratzeko bide egokiak jarriko dira, nahasketa saihesteko.

Hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei jarraituz, hondakin oro baliotu egingo da eta horretarako balioztagune baimendu batera eramango dira. Hondakinak ezabatu ahal izango dira, baldin eta horiek baliotzea teknika, ekonomia edota ingurumen aldetik bideragarria ez dela behar bezala egiaztatzen bada.

Era berean, hondakinak tratatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan instalazio baimenduak badaude, instalazio horietara bidaliko dira, autosufizientzia- eta gertutasun-printzipioei jarraituz.

Baimendutako zabortegean ezabatzea aurreikusita dagoen hondakinen karakterizazioa, 2002ko abenduaren 19ko Kontseiluaren 2003/33/EE Erabakiarekin bat etorritik gauzatuko da. Erabaki horren bidez, hondakinak zabortegean hartzeko irizpideak eta prozedurak ezartzen dira. Bestela, Erabaki hori garatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan onartutako jarraibideekin bat etorritik gauzatuko da.

Hondakinak biltzeko eremuek lurzoru estankoa izan beharko dute. Egoera fisiko likidoan edo oretsuan dauden edo oso bustita daudelako isurketak edo lixibiatuak sor ditzaketen hondakinen kasuan, horiek biltzeko kubeta edo sistema egokiak jarriko dira, ezbeharrez gerta daitezkeen isurketak kanpora irten ez daitezzen. Hondakina hautsa bada, euri-urarekin kontakturik izan dezan edo haizeak arrasta dezan saihestuko da; behar izanez gero, estali egingo da.

Hondakinak desagertu, galdu edo ihes eginez gero, berehala jakinaraziko da gertatutakoa Ingurumen Sailburuordetzan eta Hernaniko Udalean.

B.1.3.1.– Hondakin arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin arriskutsuak honako hauek dira:

- 1. prozesua: «Nahastea, itsaskortzea eta prestatzea».
- Prozesuaren kodea: A20034567/2000015229/1.
- 1, hondakina: «Kautxu naturala, hidrokarburoen erretxina eta disolbatzaile ez-halogenatuak».
- Identifikazioa: A20034567/2000015229/1/1.
- Hondakinaren kodea: Q8//R13//P13//C41-43//H3B//A704(1)//B5520.
- HEZ: 080409.
- Urtean sortutako kantitatea: 3 t.

Bobinak osatzeko estaldurak itsaskortzeko prozesuan sortzen da. Hondakinarentzat identifikatu den bidoi batean jaso eta sortzen den postua(k) zehaztu behar d(ir)a. Behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

- 2. hondakina: «Disolbatzaile ez-halogenatuak dituzten tinta-hondarrak».
- Identifikazioa: A20034567/2000015229/1/2.
- Hondakinaren kodea: Q8//R13//L5-12//C41-43//H3B//A704(1)//B5520.
- HEZ: 080312.
- Urtean sortutako kantitatea: 1.000 kg.

Produktu amaitua osatzeko bobinak mozteko prozesuaren baitako inprimaketa-azpiprozesuan sortzen da. Hondakinarentzat identifikatu den bidoi batean jaso eta sortzen den postua(k) zehaztu behar d(ir)a. Behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da. Prozesu honetan sortzen diren hondakin arriskutsuak beste prozesu batzuetako izen bereko beste batzuekin kudeatzen dira; batera kodifikatuta agertuko dira Zerbitzu Orokorrak prozesuan.

- 3. hondakina: «Erretxina halogenatuak».
- Identifikazioa: A20034567/2000015229/1/3.
- Hondakinaren kodea: Q7//D13//P13//C40//H6//A704(1)//B5520.
- HEZ 08 04 09.
- Urtean sortutako kantitatea: 1.000 kg.

Zinta itsaskorreko erroiluak nahastu, itsaskortu eta osatzeko prozesuetan sortzen da; disolbatzaileak ditu. Hondakinarentzat identifikatu den bidoi batean jaso eta sortzen den postua(k) zehaztu behar d(ir)a. Behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

- 2. prozesua: «Disolbatzaileak berreskuratzea».
- Prozesuaren kodea: A20034567/2000015229/2.

– 1. hondakina: «Ikatz aktiboa».

- Identifikazioa: A20034567/2000015229/2/1.
- Hondakinaren kodea: Q9//D15//S28//C41-43//H5//A704(1)//B10008.
- HEZ: 150202.
- Urtean sortutako kantitatea: 22 t.

Disolbatzailea berreskuratzean sortzen da. Hexanoaren eta toluenoaren berreskuratzaile bezala erabiltzen da, eta itsaskortzeko faseko labean sortutako gas-efluentea likido bihurtzen du.

Hondakinarentzat identifikatu den bidoi batean jaso eta sortzen den postua zehaztu behar da. Behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

- 3. prozesua: «Zerbitzu orokorrak».
- Prozesuaren kodea: A20034567/2000015229/3.

– 1. hondakina: «Olio lubrifikatzaile erabilia».

- Identifikazioa: A20034567/2000015229/3/1.
- Hondakinaren kodea: Q7//R13//L8//C51//H5-6//A704(1)//B0019.
- HEZ: 130208.
- Urtean sortutako kantitatea: 1.000 kg.

Nahasketa egiteko, itsaskortzeko eta produktua osatzeko ataletako ekipoetan olioak aldatzean sortzen da; olio nahastu erabiliak dira. Hondakinarentzat identifikatu den bidoi batean jaso eta sortzen den postua(k) zehaztu behar d(ir)a. Behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

– 2. hondakina: «Bateria agortuak».

- Identifikazioa: A20034567/2000015229/3/2.
- Hondakinaren kodea: Q6//R4//S37//C18-23//H8//A704(1)//B0019.
- HEZ: 160601.
- Urtean sortutako kantitatea: 100 kg.

Beruna eta disoluzio azidoa duten bateria erabiliak berritzailekoan sortzen da. Hondakin hori identifikatzeko edukiontzian biltzen dira, horretarako berariaz jarritako gunean.

– 3. hondakina: «Hodi fluoreszenteak».

- Identifikazioa: A20034567/2000015229/3/3.
- Hondakinaren kodea: Q6//R13//S40//C16//H14//A704(1)//B0019.
- HEZ: 200121.
- Urtean sortutako kantitatea: 5 kg.

Big-bag-etan ontziratzea.

Merkurioa duten lanpara erabiliak birjartzeko eragiketetan sortzen da. Hondakinarentzat identifikatu den zonan jasotzen da, hondakin arriskutsuen biltegia.

– 4. hondakina: «Disolbatzaile ez-halogenatuekin bustitako zatarrak».

- Identifikazioa: A20034567/2000015229/3/4.
- Hondakinaren kodea: Q5//D15//S40//C41/51//H5//A704(1)//B0019.
- HEZ: 150202.
- Urtean sortutako kantitatea: 3.000 kg.

Xurgatzaileak eta ehunak biltzean sortzen da; olio, disolbatzaile, eta abarrez bustitako zatarrak dira. Hondakinarentzat identifikatu den bidoi batean jaso eta sortzen den postua(k) zehaztu behar d(ir)a. Behin bete ondoren, hondakinen biltegia eramaten da.

– 5. hondakina: «Metalezko ontzi hutsak».

- Identifikazioa: A20034567/2000015229/3/5.
- Hondakinaren kodea: Q5//R13//S36//C37/41/51//H5//A704(1)//B0019.
- HEZ: 150110.
- Urtean sortutako kantitatea: 2.000 kg.

Ontzi hutsak jaso eta pilatzerakoan sortzen da; olioak, isozianatoak eta disolbatzaileak jaso dituzten ontzi metalikoak dira. Hondakin hori identifikatzeko edukiontzian biltzen da sortzen den lekuetan, eta bete ondoren, hondakin-biltegia eramaten da.

– 6. hondakina: «Plastikozko ontzi hutsak».

- Identifikazioa: A20034567/2000015229/3/6.
- Hondakinaren kodea: Q5//R13//S36//C41/51//H14//A704(1)//B0019.
- HEZ: 150110.
- Urtean sortutako kantitatea: 1.500 kg.

Ontzi hutsak jaso eta pilatzerakoan sortzen da; olioak eta disolbatzaileak jaso dituzten plastikozko ontziak dira.

Hondakin hori identifikatzeko edukiontzian biltzen da sortzen den lekuetan, eta bete ondoren, hondakin-biltegia eramaten da.

a) Hondakin arriskutsuak biltzeko sistemak bereziak izango dira, duten tipologia dela-eta, isuriren bat gertatuz gero, nahasi, arriskutsuago bihurtu edo kudeaketa zaildu dezaketen kasuetan.

b) Hondakinak biltzeko eremuek lurzoru estankoa izan beharko dute. Egoera fisiko likidoan edo oretsuan dauden edo oso bustita daudelako isurketak edo lixibiatuak sor ditzaketen hondakinen kasuan, horiek biltzeko kubeta edo sistema egokiak jarriko dira, ezbeharrez gerta daitezkeen isurketak kanpora irten ez daitezkeen. Hondakin arriskutsuak biltzeko sistemak bereziak izango dira, duten tipologia dela-eta, isuriren bat gertatuz gero, nahasi, arriskutsuago bihurtu edo kudeaketa zaildu dezaketen kasuetan. Hondakina hautsa bada, euri-urarekin kontakturik izan dezan edo haizeak arrasta dezan saihestuko da; behar izanez gero, estali egingo da.

c) Hondakin arriskutsuak jasotzen dituzten ontziek uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak (hondakin toxiko eta arriskutsuei buruzko maiatzaren 14ko 20/1986 Oinarrizko Legea betearazteko erregelamendua onartzen du dekretu horrek) 13. artikuluan ezarritako segurtasun-arauak kontuan izan beharko dituzte, eta itxita egongo dira kudeatzaileak jaso arte, isuri edo lurrundu ez daitezten.

d) Aurreko atalean aipatzen diren ontziek etiketatuta egon beharko dute, eta etiketak argia, irakurtzeko modukoa eta ezabaezina izan beharko du; etiketa 1988ko uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 14. artikuluan horretarako adierazitako jarraibideen arabera ere izango da.

e) Gainerako hondakin arriskutsuak ezin izango dira 6 hilabete baino gehiago gorde.

f) Hondakinak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eraman aurretik, nahitaezko baldintza izango da agiri baten bidez egiaztatzea kudeatzaile baimendu horrek hondakinak onartu dituela. Agiri horretan hondakinak onartzeko baldintzak ezarriko dira, eta egiaztatu egingo da tratatu beharreko hondakinaren ezaugarriak administrazio-baimenarekin bat datozela. Agiri hori Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da hondakina lehenengoz erretiratu aurretik eta, behar izanez gero, hondakin-kudeatzaile berri batengana eraman aurretik. Beharrezkoa izanez gero, karakterizazio xehatua egingo da, proposatutako tratamenduaren egokitasuna egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua Ebazpen honetako hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela.

g) Hondakin arriskutsuak eraman aurretik eta, hala badagokio, araudian ezarritako aurretiazko jakinarazpena egin ondoren, kontrolerako eta jarraipenerako agiria bete beharko da. Agiri horren zati bat garraiolariari emango zaio, zamarekin batera jatorritik helmugaraino eraman dezan. Cintas Adhesivas Ubis, S.A. enpresak artxibategian gorde beharko ditu onarpen-agiriak eta kontrolerako zein jarraipenerako agiriak, edo horien agiri ofizial baliokideak, bost urtean gutxienez.

h) Egiaztatu egin beharko da hondakin arriskutsuak baimendutako kudeatzailearen instalazioetara eramateko erabiliko den garraibideak horrelako gaiak garraiatzeko indarrean dagoen legerian ezarritako baldintzak betetzen dituela.

i) Cintas Adhesivas Ubis, S.A. enpresak sortutako olio erabilia ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuari, industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duenari, jarraituz kudeatu beharko da.

j) Aipatutako ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuan aurreikusitako kudeaketa-sistema bateratu baimendu bat ezartzen ez den bitartean, irailaren 29ko 259/1998 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoan erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duenean, begiesten diren aurreikuspenak bete beharko ditu Cintas Adhesivas Ubis, S.A. enpresak.

k) Tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak, horien artean hodi fluoreszenteak, tresna elektriko zein elektronikoei eta horien hondakinen kudeaketari buruzko otsailaren 25eko 208/2005 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera kudeatuko dira.

l) Cintas Adhesivas Ubis, S.A. enpresak poliklorobifeniloak eduki ditzaketen gailuak dituenek, kudeaketa egokia izan dadin, nahitaez bete behar ditu poliklorobifeniloak, polikloroterfeniloak eta horiek dituzten gailuak ezabatu eta kudeatzeko neurriak ezartzen dituen 1999ko abuztuaren 27ko 1378/1999 Errege Dekretuaren baldintzak eta errege dekretu hori aldatzen duen 2006ko otsailaren 24ko 228/2006 Errege Dekretua.

m) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000ko ekainaren 29ko 2037/2000 EE Arautegian ozono-geruza agortzen duten substantzia batzuk zehazten eta arautzen dira. Cintas Adhesivas Ubis, S.A. enpresak era horretako substantziarik badu, substantzia horiek bildu eta

suntsitu egingo dira aldeek erabakitako bide teknikoak erabiliz edota ingurumen-ikuspuntutik onar daitekeen suntsiketarako beste edozein bide erabiliz; hondakin horiek birziklatu edo birsortu egingo dira bestela, aparailuak azertu eta mantentzeko lanen aurretik nahiz desmuntatu eta suntsitu baino lehen.

n) Cintas Adhesivas Ubis, S.A. enpresak urtero adierazi beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari ekitaldi bakoitzean sortu dituen hondakin arriskutsu guztien jatorria, kopurua, helburua eta aldi baterako biltegiratuta dauden hondakinen zerrenda.

o) Erregistro bat edukiko du, hondakin arriskutsuei buruzko datu hauek agerrarazteko: kopurua, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, sorrera- eta lagapen-datak, biltzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua, uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuaren 17. artikuluan ezarritakoa betez, eta uztailaren 20ko 952/1997 Errege Dekretuaren bidezko aldaketan ezarritakoa betez. Sei hilean behin, Ingurumen Sailburuordetzari kontrolerako erregistro horren kopia bidaliko dio.

p) Hondakin arriskutsuen kudeaketako funtsezko oinarriak bete daitezten, hau da, hondakin horiek ahal den gutxiena sortzeko, Cintas Adhesivas Ubis, S.A. enpresak neurri zuzentzaileak erabiliz hondakin arriskutsuen sorrera gutxitzeko plana aurkeztu beharko du Ingurumen Sailburuordetzan, gutxienez lau urtean behin.

q) Aurreko f) eta g) (kudeatzaileak EAEn daudenean), n) eta o) ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektroniko bidez, IKS-L03 Sistemaren erakundeentzako bertsioa erabilita.

r) Amiantoaren duten hondakinak antzemanaz gero, Cintas Adhesivas Ubis, S.A. enpresak 108/1991 Errege Dekretuan (3. artikulua), amiantoak ingurumenean sortzen duen kutsadura saihestu eta gutxitzekoan, ezarritako eskakizunak bete beharko ditu. Era berean, amiantoaren duten hondakinak kudeatzeko egingo diren manipulazioak 396/2006 Errege Dekretuan ezarritako aginduen arabera burutuko dira; dekretu horren bidez ezarri ziren amiantoarekin lan egiterakoan segurtasun- eta osasun-arloan bete behar diren gutxienerako baldintzak.

B.1.3.2.– Hondakin ez-arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin ez-arriskutsuak hauek dira:

Hondakinaren izena	HEZ kodea	Zein prozesuri lotuta	Zenbatetsitako ekoizpena
Plastikoak	200139	Bobinak fabrikatzetik sortutako hondakinak	800.000 Kg
Papera eta kartoia	200101	Lehengaiei bilgarria kentzea	120.000 Kg
Txatarra	200140	Fabrikako mantentzea	3.000 Kg
Zura	200138	Lehengaiei bilgarria kentzea	3.600 unit

a) Erabilitako ontziak eta ontzi-hondakinak gaika behar bezala bereizi eta eragile ekonomiko bati emango zaizkio (hornitzaileari), erabilitako ontzien kasuan berriro erabili ahal izateko; ontzi-hondakinak, berriz, berreskuratzaile, birziklatzaile edo balioztagune baimendu batera.

b) Hondakin horiek ezabatzeko direnean ezin dira urtebete baino gehiagorako biltegiratuta eduki. Hondakinen azken helburua balioztagune denean, 2 urtez gorde ahal izango dira.

c) Oro har, hondakinak hustu aurretik, baimendutako kudeatzaile batek onartzen dituelako agiria izan beharko dute, onarpen horretarako baldintzak zehaztuta. Agiri horren kopia bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara, proposatutako kudeaketa egokia dela eta ebazpen honetan ezarritako oinarriko printzipioak betetzen direla egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua Ebazpen honetako hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela. Cintas Adhesivas Ubis, S.A. enpresak artxibategian gorde beharko ditu onarpen-agiriak eta kontrolerako zein jarraipenerako agiriak, edo horien agiri ofizial baliokideak, bost urtean gutxienez.

d) Halaber, hondakin geldo eta geldotuen kudeaketari buruzko azaroaren 2ko 423/1994 Dekretuarekin bat etorriz, hondakin ez-arriskutsuak zabortegei baimendu batera eraman aurretik, jarraipenerako eta kontrolerako dagokion agiria bete beharko da. Agiri horiek bost urtez gorde beharko dira.

e) Erregistro bat egingo da, hondakin arriskutsuei buruzko datu hauek agerrarazteko: kopurua, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, sorrera- eta lagapen-datak, biltzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua. Urtero, Ingurumen Sailburuordetzari bidaliko zaio kontrolerako erregistro horren kopia.

f) Aurreko c) eta d) (kudeatzaileak EAEn daudenean), eta e) ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektronikoko bidez, IKS-L03 Sistemaren erakundeentzako bertsioa erabilita.

B.1.4.– Lurzorua babesteko baldintzak.

Urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan eta otsailaren 4ko 1/2005 Legean ezarritako agindua betez lurzuaren egoerari buruz aurkeztu duten aurretiazko txostenean jasota dauden gomendioen arabera, Cintas Adhesivas Ubis, S.A. enpresak kanpoaldean kokatuta dauden disolbatzailea berreskuratzeko instalazioen eroanbideak kontrolatuko ditu aldiro eta prestaketa-zonetan zolatak duen egoera kontrolatuko du, halaber; gaur egungo instalazioen mantentze-lan ez arduratuko da, gerta daitezkeen isurketak instalazioetara eta euri-uren sarera zabaltzea ekiditeko. Era berean, inguruko lurzuaren kalitatea aztertzeke ikerketa bat egingo du, gaur egun erabiltzen ez diren gordailu zaharrak kokatzen diren zonako zoruaren egoera eta/edo litezkeen afektazioak ezagutzeko.

B.1.5.– Zaratari buruzko baldintzak.

Jarraian adierazitako zarata-mailak ez gainditzeko neurriak hartu eta instalatuko dira:

a) Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzetan barrualdean entzungo den zarata ezin izango da inoiz ere 40 dB(A) baino handiagoa izan Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, 08:00ak eta 22:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta 45 dB(A) ere gehienezko balioetan.

b) Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzetan barrualdean entzungo den zarata ezin izango da inoiz ere 30 dB(A) baino handiagoa izan Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, 22:00ak eta 08:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta 35 dB(A) ere gehienezko balioetan.

c) Era berean, zarata ezin da 60 dB(A) baino handiagoa izan, Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, industria-eremuaren kanpoko itxituran.

d) Zamalanetan eta materiala kamioietan garraiatzean egiten den zaratak ez du handituko sentsibilitate akustiko handieneko guneetako zarata-maila.

C) Ingurumenaren Jagoletza Programa.

Ingurumenaren Jagoletza Programa sustatzaileak aurkeztutako agirietan aurreikusitakoaren eta ondoko atal hauetan ezarritakoaren arabera gauzatu beharko da:

C.1.– Atmosferara botatzen diren poluitzaileak kontrolatzea.

a) Cintas Adhesivas Ubis, S.A. enpresak isurien kontrola egin beharko du, informazio honi jarraituz:

Foku zk.	Erregistro-liburuan duen izena	Fokuaren izena	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna
1	20000716-01	1. adsorbatzailea R-2 hexanoa berreskuratzea	KOG	3 urtean behin
2	20000716-02	2. adsorbatzailea R-2 hexanoa berreskuratzea	KOG	
3	20000716-03	3. adsorbatzailea R-2 hexanoa berreskuratzea	KOG	
4	20000716-04	4. adsorbatzailea R-2 hexanoa berreskuratzea	KOG	
5	20000716-05	R-3 tolueno-berreskuratzailea	KOG	
7	20000716-07	C3 lurrun-galdara	Karbono-monoxidoa (CO) Nitrogeno oxidoak (NOx)	5 urtean behin
8	20000716-08	Pikortzeko makina (1 prestaketa)	Partikulak	
9	20000716-09	M-3 estrusio-makina	Partikulak	
10	20000716-10	Inprimagailuak	KOG	
11	20000716-11	R-4 hexano-berreskuratzailea	KOG	3 urtean behin
12	20000716-12	C4 lurrun-galdara	Karbono-monoxidoa (CO) Nitrogeno oxidoak (NOx)	

Aurreko atalean aipatutako neurketa guztiak baimendutako kontrol-erakunde (BKE) batek egin beharko ditu (zortzi ordutan hartutako hiru neurri, gutxienez ordubetekoa bakoitza), eta aldizkako kontrol horiei buruzko txostenak Ingurumen Sailburuordetza honek prestatutako «Baimendutako kontrol-erakundearen gutxienerako txostenean» ezarritakora egokitu beharko du. Nolanahi ere, kontrolek eta neurketa-baldintzek Ingurumen Sailburuordetzaren jarraibide teknikoetan eskatutako baldintza guztiak bete beharko dituzte.

Arestian eskatutako parametro guztien neurketen KEB txostenak bidaliko dira. Neurketa berriak egin beharko dira, baldin eta parametroen neurketarik ez badago edo egindako neurketak ebatzen honetan kontrol-maiztasuna ezarri aurretik egindakoak badira. Atmosferara egiten diren isurketen ondorengo kontrolak, egindako azken neurketan adierazitako maiztasunarekin egingo dira.

Cintas Adhesivas Ubis, S.A. enpresak urtarrilaren 31ko 117/2003 Errege Dekretuak, jarduera jakin batzuetan disolbatzaileen erabilerak eragindako konposatu organiko hegazkorren emisioak mugatzeko baldintzei buruzkoak, ezarritakoa bete behar du. Xede horretarako, Ingurumen Sailburuordetzak eskatzen duen informazioa aurkeztu behar da.

C.1.1.– Lortutako emaitzen erregistroa.

Erregistro bat egin beharko da euskarri informatikoan edo, horrelakorik ezean, paperean. Dokumentazio gaurkotua erabilia gauzatuko da erregistroa, eta 1976ko urriaren 18ko Aginduak,

industriak atmosferan sortzen duen kutsadura saihestu eta zuzentzekoak, 33. artikuluan ezarritako edukia jaso beharko du. Erregistro horretan adieraziko dira egindako neurketen emaitzak, mantentze-lanak, garbiketa, aldizkako ikuskatzeak, matxuraren ondorioz gertatutako etenaldiak, egiaztapenak, edozein motako intzidentziak, eta abar. Dokumentazio horrek eguneratuta egon beharko du, eta ingurumen-ikuskatzaileek eskatuko balute, eskuragarri izango dute.

C.2.– Isurketa-uren kalitatearen kontrola.

a) Sustatzaileak aurkeztu dituen agirien arabera, ondorengo analisiak egingo dira:

Isurketa-puntua	Kontrolatu beharreko fluxua	Kontrol-kutxetako UTM koordinatuak	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna	Kontrol mota
1, 2 eta 5	Hozte ura	X= 585310 Y= 4790341	pH-a	Sei hilean behin	Kanpokoak
			Tenperatura		
			Solido esekiak (SE)		
			DQO		
			Olioak eta koipeak		
			Hondar-kloroa guztira		
			Kloro askea		
			Kloroa guztira		
			Fosforoa guztira		
			Zinka		
Konposatu organohalogenatuak (AOX)					
3	Hozte-ura	X= 585355 Y= 4790398	pH-a	Sei hilean behin	Kanpokoak
			Tenperatura		
			Solido esekiak (SE)		
			DQO		
			Olioak eta koipeak		
			Kloro askea		
			Kloroa guztira		
			Fosforoa guztira		
			Zinka		
			Konposatu organohalogenatuak (AOX)		
4	Industria-urak	X= 585323 Y= 4790367	pH-a	Sei hilean behin	Kanpokoak
			Tenperatura		
			Solido esekiak (SE)		
			DQO		
			Olioak eta koipeak		
			Karbono Organikoaren Guztizkoa (KOG)		
			Hexanoa		
			Toluenoa		

b) Kanpoan egiten den kontrol bakoitza, laginak hartzea zein ondorengo analisisa, «Erakunde Laguntzaile» batek (Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren 255. artikulua) egin eta egiaztatuko du, eta goian aipatutako parametroak hartuko dira kontuan. Sustatzaileak isurketa-

puntu bakoitzeko lagin hartu berri baten analisia aurkeztu beharko du gutxienez; lagina 24 orduko ur-emariarekiko proportzionala izango da, edo bestela, lagin puntual esanguratsua.

Isurketen kontrolen emaitzak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira laginak hartzen direnetik hilabete bateko (1) epean.

c) Laginketak kutsatzaile gehien sortzen den aldietan egingo dira.

d) Isurketek baimenean jarritako baldintza guztiak betetzen dituztela ulertuko da, B.1.2.3 ataleko parametro guztientzat ezarritako mugak betetzen badituzte.

e) Isurketan lehen aipatutako maiatzaren 23ko 606/2003 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriak aipatzen dituen gai arriskutsuak dauden dioen adierazpen bat igorriko du titularrak urtero. Adierazpen horretan ekoizte-prozesuan manipulatu diren substantzia guztiak adierazi behar dira, nahiz eta isurketan ez detektatu.

f) Era berean, txosteneko dokumentazioa osatzeko, honako azterketa hauek egin eta aurkeztuko dira hilabete bateko epean:

– DQO, DBO₅, ekotoxikotasuna, R2 eta R3 kondentsadoreen hexano, tolueno eta fenolen guztizkoak, eta guztien laginak hartuko dira.

– DQO, DBO₅, Ekotoxikotasuna, R4 kondentsatuen uren hexanoa eta toluenoa.

C.3.– Jardueraren adierazleak kontrolatzea.

Sustatzaileak jardueraren gaineko ondorengo parametro adierazleen jarraipena egingo du urtero, ingurumenean duten eragina aztertzeko:

Adierazlea	Unitatea
Uraren erabilera	Erabilitako ur litroak/100.000 m ² zintako
Berreskuratzaileen errendimendua	Hexanoaren berreskuratzearen %
Berreskuratzaileen errendimendua	Toluenoaren berreskuratzearen %
Disolbatzailea kontsumitzea	Litro disolbatzaile / m ² zinta
HA balioztatuak	HA balioztatuak / HA sortuak
HeA balioztatuak	HeA balioztatuak / HeA sortuak

C.4.– Zarataren kontrola.

Jarduera garatzen den lurzatiko baldintza akustikoak hiru urtean behin kontrolatuko dira, batez ere zarata etxe barruetara sartzeko arriskurik handiena dagoen aldeetan. Kontrolako lehen urtean izandako emaitzen arabera erabakiko da aurrerantzean neurketak urtero egin ala ez.

Sustatzaileak neurketen proposamen zehatz bat landu beharko du eta neurketa-metodo zehatzak adierazi bertan. Proposamen hori Ebazpen honetako C.6 atalean aipatzen den Ingurumenaren Jagoletza Programako testu bateginarekin batera aurkeztuko da.

C.5.– Emaitzak kontrolatu eta bidaltzea.

Ingurumenaren Jagoletza Programa osatzen duten analisi eta txostenen emaitzak behar bezala erregistratuko dira, eta Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira. Ingurumenaren Jagoletza Programaren emaitzak urtean behin bidaliko dira, beti martxoaren 30a baino lehen, ingurumenean

aditua den erakunde aske batek egindako txostenarekin batera. Txosten horretan adieraziko dira neurri zuzentzaileen funtzionamendua, eta prozesuak eta ingurunearen kalitatea kontrolatzeko sistemak. Emaitzen analisia ere adieraziko da, eta bereziki aipatuko dira aldi horretan gertatu diren gorabehera garrantzitsuenak, horien ustezko arrazoiak eta konponbideak, eta baita laginketen xehetasunak ere, aurretik zehaztu ez baldin badira.

Isuritako uraren kalitatearen kontrolari buruzko emaitzak, gainera, hiru hilean behin bidaliko dira Uraren Euskal Agentziara (Gipuzkoako Ordezkaritza).

C.6.– Ingurumenaren jagoletza programari buruzko agiriategina.

Sustatzaileak Ingurumenaren Jagoletza Programaren agiriategina landu beharko du, aurkeztu dituen agirietan eta Ebazpen honetan proposatutako betekizunak bilduz. Programa horrek hauek zehaztu beharko ditu: kontrolatu beharreko parametroak, parametro bakoitzerako erreferentziailak, analisi edo neurketen maiztasuna, laginketak edo analisiak egiteko teknikak, eta laginak hartzeko guneen kokapen xehatua. Halaber, dagokion aurrekontua ere barne hartu beharko du.

Era berean, Ingurumenaren Jagoletza Programak jardueraren adierazleak zehaztu eta adierazle horiek aztertzeke sistematika barruan izan beharko du, horien arabera enpresan bertan ingurumen-hobekuntza ziurtatzearen ezarritako neurri eta mekanismoen eraginkortasuna egiaztatu ahal izateko (ingurumen-adierazleak).

D) Ez-ohiko egoeretan, prebentzio-neurriak eta jardunerako baldintzak.

D.1.– Fabrika gelditzeko eta abiarazteko eragiketak eta mantentze-lanetarako programatutako eragiketak.

Ebazpen honetan zehaztutako neurriak bete beharko dira gelditzeko eta abiarazteko eragiketetan (urteko geldialdiak).

D.2.– Jarduera uztea.

Jarduera lege hauen aplikazio-esparrukoa da: lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legea, eta kutsadura sor dezaketen jardueren zerranda eta lurzoru kutsatuen adierazpenerako irizpide zein estandarrak ezartzen dituen urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretua. Hori dela-eta, Cintas Adhesivas Ubis, S.A. enpresak hasiera eman beharko dio lurzoruaren kalitatearen adierazpenerako prozedurari, gehienez ere bi hilabeteko epean, jarduera behin betiko uzten duenetik kontatzen hasita, otsailaren 4ko 1/2005 Legeak 17.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

D.3.– Ez-ohiko jardunean aplikatzeko prebentzio-neurriak eta jarduerak.

Proiektu Teknikoko 11. kapituluan barne hartutako proposameneko egoera ez-ohikoetarako prebentzio-neurrien eta funtzionatzeko baldintzei kalterik egin gabe, ondorengo ataletan zehaztutako baldintzak bete beharko dira:

a) Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua eduki beharko da instalazioen egoera bermatzeko, batez ere ustekabeko isuri edo ihesak daudenean kutsadura ekiditeko eskuragarri dauden baliabideei dagokienez. Isuri-ihesak daudenean lurzorua babesteko hartu beharreko neurriak zehaztuko dira, eta zehatz adieraziko da hauei dagokien guztia: eraikuntzako materialak (iragazgaiztea), biltegitzeko neurri bereziak (gai arriskutsuak), egon daitezkeen isuri-ihesak antzemateko neurriak edo gainbetetzerako alarma-sistemak, lantegiko kolektore-sarea zaindu eta garbitzekoak (sistematikoki garbitzeko beharra, maiztasuna, garbiketa mota), eta lurzoruaren gaineko isuriak biltzeko sistemak.

b) Aurreko paragrafoan adierazitako eskuliburuak ikuskaritza eta kontrolerako programa jaso beharko du, hauek bilduko dituena: estankotasun-probak, mailen eta adierazleen egoera, balbulak, presioa arintzeko sistema, hormen egoera eta lodieren neurketa, andelen barnealdearen begi-bidezko ikuskaritzak (hormena eta estaldurena) eta kubetetako detekzio-sistemen aldizkako kontrol sistematikoa, zorua kutsa dezakeen edozein egoerari aurre hartzeko.

c) Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburu horretan kutsadura atmosferikoa prebenitzeko eta zuzentzeko sistemen (arazketa, minimizazioa, eta abar) egoera ona bermatzeko neurriak jaso beharko dira.

d) Era berean, ustiapenari buruzko eskuliburu bat eduki behar da, eta bertan, aldizka egindako mantentze-lanen berri eman behar da, baita antzemandako gertaerena ere.

e) Olioak, ikatz aktiboa, disolbatzaile ez-halogenatuak eta, orokorrean, instalazioan sortutako hondakinak maneiatzeak lurzorua eta ura kutsa ditzake. Beraz, isurketak, jarioak edo ihesak gertatzeko arriskua izan dezaketen azalera guztiak iragazgaitzuko dira.

f) Prozesurako behar diren lehengaiak, erregaiak eta produktuak ingurunean ez sakabanatzeko moduan biltegitratuko dira.

g) Segurtasun-tarteei eta babes-neurriei dagokienez, egiaztatu egin beharko da biltegitratzeko instalazio horiek bete egiten dituztela produktu kimikoak biltegitratzeari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betebeharrak. Egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaizkio eskumena duten erakundeek emandako egiaztagirak.

h) Larrialdirik gertatuz gero, berehala eta eraginkortasunez esku hartzeko beharrezkoak diren material guztiak edukiko dira, kantitate nahikoan: berriro ontziratzeke erreserbako edukiontzia, beharrezkoa izanez gero; gerta daitezkeen isuriei eusteko produktu xurgatzaile selektiboak, segurtasuneko edukiontzia, hesiak eta kaltetutako ingurunean isolatzeko seinaleztapen-elementuak eta babes pertsonalerako ekipamendu bereziak.

i) Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da kubetak husteko eragiketarako kontrolatzeko protokolo edo agiri bidezko prozedura; eraginkortasunean eragin dezaketen produktuen jarioak ez dira tratamenduko instalaziora eramango.

j) Larrialdi-egoeretan, babes zibileko legeriari helduko zaio, eta bertan ezarritako betekizun guzti-guztiak bete beharko dira.

k) Titularrak behar diren bitartekoak izango ditu arazketa-instalazioak zuzen ustiatzeko eta ustekabeko isuriak prebenitzeko hartu diren segurtasun-neurriak abian izateko.

Estazioan erroilu erako edo gai pikortatuzko, edo antzeko berariazko gai xurgatzailea izango da, ustekabeko jario edo ihesetan berehala aplikatu ahal izateko.

Ebazpen honetan deskribatutako jardueraz gain, gasoleoa biltegitratzeko eta manipulatzeko instalazioak behar den bezala isolatuko dira, ustekabeko hausturak edo jarioak, eta abar, gertatzen direnean horiei eusteko.

l) Ingurunearen edo jardueraren kontrolaren gainean kalteak eragin ditzakeen gorabehera edo ez-ohiko gertaeraren baten aurrean (besteak beste, isurpenaren muga-balioak gainditzea eta ustekabeko isuri bat egitea), sustatzaileak gorabehera edo ez-ohiko gertaera horren berri eman beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari.

m) Gertakari edo arazo larriren bat edo ustekabeko isuriren bat egonez gero, SOS DEIAK eta Udalarari ere jakinarazi beharko zaie berehala. Ondoren, eta gehienez ere 48 orduko epean, ezbeharrari buruzko txosten xehatua bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara, eta bertan, datu hauek agertuko dira gutxienez:

- Gertakari mota.
- Gertakaria non, zergatik eta zer ordutan gertatu den.
- Iraupena.
- Ustekabeko isuria bada, emaria eta isuritako gaiak.
- Mugak gaindituz gero, isurtzeei buruzko datuak.
- Eragindako kalteen balioespena.
- Hartutako neurri zuzentzaileak.
- Berriro gerta ez dadin aurreikusitako neurriak.
- Prebentzio-neurriak eraginkortasunez aplikatzeko ezarritako epeak.

n) Instalazioek suteen aurkako babesari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betekizunak betetzen dituztela egiaztatu beharko da. Egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaizkio eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiria.

E) Baldin eta arautegi berria indarrean sartzeak, edo barneratzen diren sistemen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza berri esanguratsuetara egokitu beharrak hori egitea gomendatzen badute, neurri babesle zein zuzentzaileak eta Ingurumenaren Jagoletza Programa aldarazi ahal izango dira, bai neurtu behar diren parametroen kasuan, bai neurketaren aldizkakotasuna eta aipatutako parametroek hartu behar duten tarteari dagozkion mugen kasuan. Era berean, neurri babesle zein zuzentzaileak eta Ingurumenaren Jagoletza Programa jardueraren sustatzaileak hala eskatuta, edo ofizioz, aldaraz daitezke, Ingurumenaren Jagoletza Programan lortutako emaitzetan oinarrituta.

F) Urtean behin Cintas Adhesivas Ubis, S.A. enpresak Ingurumen Sailburuordetzari jakinaraziko dizkio atmosferara botatuko kutsagarriei, uretara egindako isurketei eta sortu dituen hondakinei buruzko datuak, E-PRTR-Euskadi, botatuko eta eskualdatutako kutsagarrien Europako Inbentarioa landu eta eguneratzeko, apirilaren 20ko 508/2007 Errege Dekretuaren, E-E-PRTR Araudiko eta ingurumeneko baimen bateratuetako isurketen gaineko informazioa ematea arautzen duenari jarraituz.

Informazio hori ekitaldi horren hurrengo martxoaren 31 baino lehen bidali beharko dira. Informazioa Ingurumenari buruzko Adierazpenaren (IA) bidez gauzatuko da, hori baita kanpoko erakundeek eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak ingurumen-informazioa bata besteari elektronikoki emateko ardatza. Informazio-trukaketa horren funtsa Ingurumenari buruzko Adierazpenari (IA) dagozkion ingurumeneko datu teknikoak eta prozedurakoak sartzean datza, IKS-L03 Sistemako erakundeentzako bertsioaren bidez (www.eper-euskadi.net web orrian eskuragarri): Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko Ingurumen-informazioa Kudeatzeko Sistema. Datu horiek guztiek Ingurumenean Eragina duten Jardueren Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroa osatuko dute, Europako Ingurumen Agentziaren Erregistroa (Europako E-PRTR Erregistroa) egiten diren informazio-bidalketen oinarri dena.

Halaber, ebazpen honetan aurreikusitako gainontzeko informazio-trukeak aipatutako Ingurumenari buruzko Adierazpenaren bidez gauzatuko dira, ahal izanez gero.

Informazio hori agerikoa izango da, uztailaren 18ko 27/2006 Legearen xedapenekin bat etorriz. Lege horren bidez informazioa eskuragarri izateko, herritarren partaidetzarako eta ingurumen-gaietan justizia eskura izateko eskubideak arautzen dira (2003/4/EE eta 2003/2005/EE Zuzentarauak jasotzen ditu). Horrez gain, uneoro bermatu beharko da datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betetzen dela.

G) Ingurumeneko baimen bateratu honen eraginpeko instalazioan egindako aldaketek bat etorri beharko dute kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak 10.3 artikuluan ezarritako komunikazio-erregimenarekin. Hori horrela, ingurumeneko beste baimen bateratu bat beharko da aldaketak funtsezkoak direnean.

Hirugarrena.– Ebazpen hau eraginkorra izan dadin, aurretik Ingurumen Sailburuordetzari agiri bidez egiaztatu beharko zaio ebazpen honetako Bigarren ataleko puntu hauetan ezarritako baldintzak betetzen direla: B.1.2.4 (Isurketak egokitzeko ezartzeke dauden neurriak); B.1.3.1.f) eta B.1.3.2.c) (Hondakin arriskutsuak eta ez-arriskutsuak onartzeko agiriak); B.1.3.1.o) eta B.1.3.2.e) (Hondakin arriskutsuen eta ez-arriskutsuen Erregistro Eredua); B.1.4 (Lurzoruaren babesari dagozkion baldintzak); hala badagokio, C.1 (Atmosferara egiten diren isurketen kontrola); C.1.1 (Atmosferara egiten diren isurketen Erregistro Eredua); C.6 (Ingurumenaren Jagoletza Programaren testu bategina); D.3.a) (Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua); D.3.d) (Ustiapenaren eskuliburua); D.3.g) (Produktu kimikoak biltegitratzeko ziurtapenak); D.3.h) (Larrialdietarako materialen zerrenda); D.3.i) (Kubetak husteko protokoloa); D.3.n) (Suteen kontrako babes-ziurtapenak).

Goiko baldintza horiek guztiak betetzeko 6 hilabeteko epea ezarri da, ingurumeneko baimen bateratua eraginkorra dela adierazteko Ingurumen Sailburuordetzak emandako ebazpen hau jakinarazten den biharamunetik kontatzen hasita.

Halaber, baimen hau indarrean jarri aurretik, ingurumen-organo honi atxikitako zerbitzu teknikoen ikuskaritza-bisitan egiaztatu beharko da instalazioak aurkeztutako proiektuaren arabera eta Ebazpen honetan ezarritakoarekin bat etorrira eraiki direla. Horretarako, aipatutako ikuskaritza-bisitaren aurretik, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu beharko du baldintza horiek betetzen direla egiaztatzen duen agiria, teknikari aditu batek eginda.

Adierazitako baldintzak betetzen direla ziurtatzean, ebazpena emango da eta, horren bitartez, ingurumeneko baimen integratua eraginkortzat aitortuko da.

Laugarrena.– Ingurumeneko baimen bateratu hau 8 urteko epean egongo da indarrean, aurreko atalean ezarritakoaren arabera ondorioak dauzkan egunetik kontatzen hasita. Epe hori igarota, baimena berri egin beharko da eta, hala badagokio, jarraian datozen aldietarako eguneratu.

Ingurumeneko baimen bateratua amaitu baino hamar hilabete lehenago, titularrak baimena berritzeko eskaera egin beharko du, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 25. artikuluan xedatutakoa betez.

Apirilaren 20ko 509/2007 EDren 7. artikulua arabera, baimena berritzeko gutxienez aurkeztu behar den dokumentazioa instalazioko gertaera, egoera eta gainerako ezaugarri teknikoen agiriak, eta prozesuaren eta kokapenaren agiriak dira, betiere jatorrizko baimen-eskaeran edo balioaldiak iraun duen bitartean aurkeztu ez bada. Baimena berritzeko izapideei dagokienez, informazio publikoko izapidea beteko da eta udaletxeari eta Arroko Erakundeari kasuan kasu txostenak eskatuko zaizkie; halaber, entzunaldi-izapidea beteko da.

Bosgarrena.– Edonola ere, ingurumeneko baimen bateratua ofizioz aldatu ahal izango da uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 26. artikuluan ezarritako kasuak aintzat hartuta.

Seigarrena.– Cintas Adhesivas Ubis, S.A. enpresak Ebazpen honen xede den zinta itsaskorrak fabrikatzeko jardueran titulartasun-aldaketarik eginez gero, aldaketa hori Ingurumen Sailburuordetzan jakinarazi beharko du, hark onar dezan.

Zazpigarrena.– Baimen honek balioa galduko du kausa hauek gertatzen direnean:

– Epearen barruan ez egiaztatzea ebazpen honetako hirugarren atalean ingurumeneko baimen bateratuak ondorioak izan ditzan ezarritako baldintzak betetzen direla, interesdunak behar bezala justifikatuz epea luzatzeko eskatzen ez badu.

– Cintas Adhesivas Ubis, S.A. enpresaren nortasun juridikoa bukatzea, indarrean dagoen araudian ezarritako kasuetan.

– Baimena indarrean jartzen dela adierazten duen ebazpenean xedatutakoak.

Zortzigarrena.– Ebazpen honen edukia jakinaraztea Cintas Adhesivas Ubis, S.A. enpresari, Hernaniko Udalari, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozeduran parte hartu duten erakundeei, eta gainerako interesdunei.

Bederatzigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Hamargarrena.– Ebazpen honek ez du agortzen administrazio-bidea; horrenbestez, interesdunek gora jotzeko errekurtsioa aurkez diezaiokete Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunean kontatzen hasita, hori guztia Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. artikuluekin eta ondorengoekin bat etorritik (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen lege hori).

Vitoria-Gasteiz, 2008ko apirilaren 25a.

Ingurumeneko sailburuordea,
IBON GALARRAGA GALLASTEGUI.